




*Bederatzi urte darama Oñatin gasteiztar honek.  
Gazte gehienak ezagutzen dute. Baina bere  
bizimoduari buruzko xehetasunak baten batzuei  
interesatuko zaizkielakoan, galdera-sorta hau  
luzatu diogu.*



## XABIER INFANTE "HARTZA"

### - Noiztik zara zu *Hartza*? Betidanik?

Ez, betidanik ez, orain dela 18 urte edo Gasteizko C.U.A.n kimika ikasten geundela, gure taldean oso integratua zegoen arrasatear bati bururatu zitzaion *Hartza* deitzea. Arrazoa bistan da, oso iletsua naizelako.

### - Norbaitek ezagutzen zaitu Xabier bezala?

Amak, eta anaiak noizean behin. Bestela, lagunek *Hartza* deitzen naute. Hasi-ran ama zeharo harritu zen norbaitek etxera deitu eta "*Hartza* etxian dago?" galdetu zuenean.

### - Kimika ikasi zenuela esan duzu?

Bai, hasi bai, baina hiru urte egin ondoren konturatu nintzen ez zela nire karrera. Orduan Magisteritzara joan nintzen, tituloa atera eta erabaki beharra izan nuen: piszina ala irakaskuntza, eta igeriketa aukeratu nuen.

### - Noiztik zara igerilaria?

Zazpi-zortzi urterekin hasi nintzen eta txapelketatan hemezortzi urtera arte ibili nintzen.

### - Zenbat medaila lortu duzu?

Beno, Euskadi mailan hiru aldiz izan naiz txapeldun, lehenengoa 13 urtekin,

eta Espainiako txapelketan 3. postua lortu nuen 14 urte nituela.

### - Zein estilotan aritzen zinen?

Nere hanka-posturan igartzen denez, bular estiloan edo txantxiku eran. Urte batzuk horretan jardun ondoren, oso normalea da hankak txantxikuenak moduan gelditzea.

### - Eta beste eratan nola moldatzen zara?

Besteak ere menperatzen ditut eta erakutsi ere denak erakusten ditut, baina nik praktikatzeko eta gogokoena: bularra.

### - Txapelketatan parte hartzeko gazterik hasi behar omen da, baina, kirol moduan praktikatzeko, nor animatuko zenuke igerian ikastera?

Edonor, edozein adin da ona igerian ikasteko. Gogoratzen dut ni Oñatira etorri nintzenean izan nuen talde jatorra: guztiak 60 urte inguruko andreak eta denek

ikasi zuten igeritzen. Eta ez estilo bat bakarrik, hiru estilotan baizik: bai krola, bai bizkarra eta bai bularra ere, eta oso ondo gainera.

### - Aloña Mendiko igeriketa taldea entrenatzen ere bazabiltz; Oñatin badago igeriketarako afiziorik?

Momentu honetan 65 bat neska-mutiko dabiltz, 8tik 18 urte bitartekoak; badugu zaharrago bat ere: Unai Pedregal. Hori izan da gure igerilariarik onena, Espainia mailan 2. eta 3. postuak lortu izan ditu. Baina igeriketa oso kirol gogorra da, goizeko 6'30etan entrenatu beharra...

### - Eta hori zergatik?

Guretzako komemigarriagoa da, igerilekua guretzat bakarrik behar izaten dugu eta. Gainera normalean jendea ingelesera edo musika-eskolara edo joaten da, eta ekintza horiek arratsaldean izaten dira. Bestalde, nere lan ordutegia ere goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 7-8etan bukatu

# ARRREGUI Haltzariak

Euskadi, 5 - Sta. Marina, 4 - Kale Barria, 57  
Tfnoak. 78 07 13 - 78 30 83 - OÑATI



zen da eta ni ez nago ordu horietan entrenatzen hasteko; neure neuronak gastauta egoten dira. Horregatik goizean aprobataxo egitea pentsatu genuen eta azkenean oso positiboa izan da eta horrekin jarraitzen dugu.

"Igeriketa oso kirol gogorra da eta entrenamendu asko eskatzen du, txapelketatan parte hartu nahi izanez gero"

**- Igeriketa taldean dabilzenei noizean behin premioen bat ematen omen diezu? Astero txupatxusa edo...**

Ez, astero ez, hamabostero. Nire ustez, lan gogorra egiten dute eta hori onartzeko noizian behin txupatxusa jasoten dute denak, 18 urtekoak barne.

**- Zu euskaldunberria zara, baina noiz hasi zinen euskararekin arduratzen?**

Arduratu ala saiatu? Beno, ba arduratu, 18 urtekin gutxi gora behera, C.U.A.an gipuzkoarrekin harremanetan hasi nintzenetik neukan euskara helburu bezala. Baina saiatzen hasi, ba, Magisteritzara joan nintzenez hasi nintzen ikastaroetan parte hartzen. Gero urtebetez Errezilen

euskara ikasteko aukera izan nuen eta orduan gainditu nuen "arainaztarran" maila.

**- Zenbaiteraino da egia euskara ikastea zaila denaren mitoa?**

Hombre!... zaila da, baina ingelesa bezain zaila. Hori da behintzat nik pentsatzen dudana; hizkuntza guztiak dute berea eta euskara, romanikoa ez izanik, frantsesarekin konparatu ezkereraz zailagoa da. Baina, gogoia baduzu, azkenean ikasten duzu, baita Gasteizen ere, nik orain nere anaiarekin ikusten dudana bezala: E.G.A.rako gertatzen ari da eta, hitzegiteko justu xamar ibili arren, bera oso gustorago dago.

"Euskara ikastea zaila da, baiña ingelesa bezain zaila nere ustez"

**- Udal langile bezala hizkuntza eskakizunik bete behar duzu?**

Bai, orain ganditu berri dut nere lanpostuari dagokion hirugarren perfila, baiña nere ustez lehenagotik nago prest eta lehengo momentutik euskaraz aritu nintzen bai Ikastolakoekin, bai Milagrosakoekin, bai Herri Eskolakoekin eta baita

Benediktinetakoekin ere. Argi eta garbi esanda, denak euskaldunak direlako.

**- Zer dela eta etorri zinen Oñatira lanera? Lehenagotik ezagutzen zenuen?**

Nik aukeratu nuen hona etortzea, lehenagotik ere ezagutzen nuelako, San Migel eta Gasteizko kuadrilan gurekin dabilen oñatiar batekin etorrira.

**- Oñatiarekin edo zure lanarekin lotutako anekdotarik...**

Anekdotak? Beno, orain dela bi urte, andra bat etorri zitzaidan ezkondua nintzela esanaz, bazekiela nik emaztea eta bi sema-alaba nituela Gasteizen. Orduan nik, hain ziur zegoenez gero, beraien argazki bat ekartzeko esan nion, neuk ezagutu ahal izateko.

**- Igeriketatik aparte beste afiziorik...**

Bai, asko. Kirol mailan futbola, domeketan ikustera joateko. Eta egiteko, gimnasia, pala, scuasha...halako gauzak, baiña futbola, jokatzeko, ez da neure gustoko gauza.

**- Aloña Mendi futbol taldearen jarraitzailea zara?**


Bai, eta Alavesena ere bai, hori da nere ekipoa, azkenengo 30 urte hauetan sozioa naiz.

**- Parrandak zure hobby-en artean sartzen dira?**


Ni nahiko parranderoa izan naiz, parrandero haundia, baina orain bakarrik parranderoa, ia gorputza gastauta dudalako.

**- Bidaiak egitea gustokoa duzu...**

Bai hori bai. Hori urtero urtero egin behar da, berdin da tropikora edo leku hotzetara. Aurten oraindik ez dakit nora, baina nonbaitera joango naiz aurten ere.



Araba Etorbidea, 4  
Tfnoa. 79 01 32  
**ARRASATE**  
9,00 - 13,00  
16,00 - 20,00



Olakua, 14  
Tfnoa. 71 60 00  
**OÑATI**  
16,00 - 20,00

**ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA**

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

**HURBILDU ZAITEZ  
GURE BULEGOETARA!**